

Baserriz baserri kantari

**Maidar IANTZI
GOIENETXE**

Bizitzaren etxeak dira liburute-giak, eta arima zaintzeko tokiak. Badakizu nola jaio zen historiako lehendabiziko liburua? Idatzitako airea baino ez diren hitzek uretako landare baten bihotzean hartu zuten babes, ihi batean. Eta objektu malgu bat sortu zen, bidaia eta abenturei ekiteko aproposa. Begi-ni-niak ezker-eskuin mugituz, irakurlea bertze mundu batzuetara doa, oinak lurrean hegan, berak aukeratutako bideetatik, inori non aurkitu erran gabe.

Hala kontatzen du Irene Vallejok “Infinitua ihi batean” harribitxian, eta eransten du zu bezala isilik irakurtzen hasi ziren aurreneko lagunei harrituta

begiratzen zietela, ordura arte ahots goran leitzen baitzen, ez idazlearen eta irakurlearen arteko elkarrizketa libre eta sekretuan.

Bertze altxor bat ere partekatu nahi dut, hitzekin lotua hau ere: gure herrian urtea baserriz baserri kantari agurtzeko dagoen ohitura. Kantu zahar eta bertso berriekin izan diren gertaerak aipatzen dira, herriaren eta landaren arteko harremanak estutzen dira, eta normalean egoten ez garen lagunen artean elkarrizketa politak sortzen dira. Hori dena mendi buelta bat egin ez gainera, boladan jarri diren Urtezaharreko jantzi dotoreen beharrik gabe, xume-xume. Txakurrak, katuak,

ardiak, behiak eta arrainak lagun, ilundu ahala argitzen diren ilargiak eta izarrek gidatuta, bista zoragarriekin, xarmaz beteta.

Herrigunean egiten den “diostesalve”-az aparte, baserrietako itzuli hau egiten hasi zen duela hamarkada batzuk herritar talde bat, eta belaunaldiz belaunaldi eusten ari zaio ohiturari, joan direnak gogoan eta hasiberrien grinaz. Baserritarrek jan-edan goxoa jartzen dute hitz eta bertsoen truke eta zentzu guztietan aseta itzultzen gara etxera. Hala oheratu nintzen Urtezahar honetan, afaltzeko eta kanpaikadak aditzeko beharrik gabe, bizitakoaren pozez, arima bero-bero. •

Norentzat dute jotzen kanpaiek?

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Gizaki bakoitza kontinenteko pieza bat da, guztiaren zati bat... horregatik, ez galdetu inoiz kanpaiek norengatik jotzen duten; zugatik jotzen dute». Idatzi zuen John Donne poeta metafisikoak 1624an. Poema hartan inspiratuta idatzi zuen zutabe honen izenburu bera darman eleberria Ernest Hemingway handiak 1940an, Espainiako Gerra Zibila amaitu berrian. Ez zion Donne jaunari jaramon handirik egin antza.

Barka nazatela lizentzia hartu izana, baina garai berri hauetan nehork ez du ulertzen kanpaien hizkuntza eta, on-

dorioz, zentzurik ezean, melodia galdu egiten zaigu belarrietan zarata huts lez! Urte berriaren etorreran jo eta su ari dira eliz dorreko ezkilak biraka birao eroan garrasika kaletarroi. Baina herriko talaiatik zelatarien doinu zarratatuek etorkizun argia ala iluna dute oihukatzen?

Gizakiek bederen barneratuta dute ez-kila hots goibelek ikatzaren itzalpeko etorkizuna iragartzen dutela eta argiak, nonbait agertzen bada, soilik Loteria-potoleenaren sariduna argizatuko duela. Baina AC/DC taldeak “Hells bells” abesti mitikoarekin bezala infernura eraman

nahi gaituzte ala, Erdi Aroko herri gotortuetako murrueetatik nola, gaiztoen mehatxueetatik ihes egin eta kontinente harresituan babestera deitzen gaituzte?

Zorionez, dena ez da zuria ala beltza eta Laboa miretsiak «...denok ala inor ez...» abestean Donneren poematik ari dela badirudi ere, nik nahiago diot hirugarren aukera bati heldu: ez zuria ez beltza, gorria; inoiz baino energia handiagoz kanpaia jo eta kanpaia jotzearen melodia-bulkadek sexualki matxinatzen deitzen gaituztelakoan nago... Norberaren esku dago kanpaia dantzan jartzea. •